

Santa Eskea (1962-2012)



Urteurreneko logoa
Luis Telleriak egin du.

ohituraren hatsa makil hotsez

• Jon Odriozola

Hiru lagun. Bilgunea. Proposamena. Akordioa: *"Ados irtengo gara"*. Hau izan daiteke Tiburtzio Patxi Odriozolak, Inazio Mari Zubeldiak eta Koldo Goiak adostu zutenaren laburpena. Noiz? 1962 urte inguruan. Orduko Hernanik ez zuen egungoarekin zerikusirik. Duela mende erdi 12.000 bizilagun pasatxo zituen herriak.

Tiburtzio Patxi Odriozola.



Egin dezagun urteetan atzera. Herriko taberna batean hitzordua jarri ondoren, Odriozolak bi lagunei Santa Eskean irteteko talde bat osatzeko proposamena egin zien. Zubeldiak eta Goiak *"Bai"* erantzun zuten. Gerra Zibilaren (1936-1939) aurretik EGIk (Euzko Gaztedia) ateratzen zuen Santa Eskeko taldearen pausoei jarraituz, kantuan irteteko koadrila bat sortzeari ekin zioten.

Talde osatzeko lana nola egin zen ondo gogoratzen ez badu ere, *"Patxik proposatu eta lasterrera irten ginen lehen aldiz Santa Ageda bezperan"*, esan du Zubeldiak. *"Bertsolariak aritzen diren bezala, bat-batean ekin genion"*.



1960ko hamarkadan Santa Agedako partaideak elizaren aurrean.

1962an, Joxe Mari Tomasena eta Joxe Ramon Beroitz taldeko gazteenetarikoak ziren. *"Duela 50 urte parte-hartzaileen artean adin tarte handia zen arren, koadrila polita elkartu ginen bateginik"*, adierazi du Tomasena. Beroitzek Patxi Odrizolaren bidez jakin zuen talde bat Santa Ageda bezperan kantuan irtengo zela. *"Biok elizako abesbatzako partaide ginenez, Patxik, Santa Agedako entseguetan parte hartzeko gonbita luzatu zidan"*.

Santa Eskean, lehen urtean, Joxe Agirre Oranda (Azpeitia, 1929) aritu zen bertsotan. Inazio Mari Zubeldia eta Angel Osa elkarrekin joan ziren motoan Azpeitira bertsolariarekin hitz egi-tera. *"Uste dut Imanol Lazkanoren bitartez jarri gina harremanetan Agirrerekin"*, esan du pentsakor Zubeldiak. 1962an, Agirre, katarroaren ondorioz edo, eztarri urratuarekin etorri zen Hernanira. Beraz, bertsotan hasten zen bakoitzean, ezti koi-larakada bat ematen aritu zitzaion azpeitiarrari Zubeldia botika modura. Agirrez gain, giro ederra sortzen ei zuen Andres Narbarte Xalto (Goi-zueta, 1927-1971) bertsolari ere ibili zen koadri-larekin ondorengo urteetan bertsotan. Baita Joxe Mari Ormazabal *Tturko* hernaniarra ere behin edo behin.

"Ba al gea? "

Mende erdian zehar, taldeak leku ezberdine-tan egin izan ditu entseguak. Musika eskolako sotoan, kultur etxean... Baita 'Ate txikietan' ere. Hau da, San Joan Bataiatzailearen elizak Ezkiaga pasealekura ematen duen eliza-sarreran zein lehen solairuan. *"San Sebastian egunean hasten ge-nituen, eta otsailaren 4a bitartean egunero-egunero jende dezente biltzen ginen"*, gogoratzen du Joxe Ramon Beroitzek.

Lehen urteetan, arratsaldeko seiak aldera abiatu orduko, *Kaleras* auzora joan zen taldea. Alkatearen etxea aurrean -Tiburtzio Agirre-kantuan egin ondoren, Izpizua kaleko apaizetxe atarian bikarioari kantatu zioten. Ondoren kax-kora. *"Oraingoaren aldean, oso arin ematen genuen kale-buelta"*, erantsi du Tomasena. Geldialdi ba-koitzean kanta pare bat kantatu, eta bertsolariak beste hainbeste bertso botatzen zituen. Eztarria bustitzeko, tabernek ardo porroiak eskaintzen zizkieten.

Eguraldi txarra ohiko bidaia-laguna da Santa Ageda bezperan. Tomasena egun bat bereziki

du gogoan. *"Behin, denetarik egin zigun; euria, kaz-kabarra, elurra... Hainbeste bota zuen, aterkiak, elurraren pisuaren ondorioz tarteka arindu egin behar izaten genituela"*.

Beroitz, hasierako urtetik izan da solista. Berarekin batera Iñaki Ugalde, Julian Montero, Pako Tejedor, Joxan Esnal, Iñaxio eta Esteban Iriarte... ere aritu izan dira. Behin, bakarlari gisa ari zela, hanka sartu zuen Beroitzek. *"Ohartu orduko Inazio Mari Zubeldiak zera esan zidan: 'Konturatu al haiz bi bertotako letrak nahastu dituala?' 'Inor konturatu al duk?' galdetu nion. Eta berak, 'Ez'. 'Ba segi dezagun aurrera!' erantsi nuen nik"*, aipatu du irribarretsu.

Bederatziak laurden gutxi alderako amaitzen zen kale-buelta, eta makilak bildu ondoren, denok batera Joxe Mari tabernara joaten ziren afaltzera. Tabernak, egungo Telemar dendan zuen jantokia. Bapo afaltzen zuten. Soldadus-kara joan behar zutenei, gainontzeko guztiek or-

daintzen zieten afaria. Santa Eskean biltzen ziren *xoxak*, berriz, premia zuen herriko sendiren bati ematen zizkioten. Afalostean etxera, eta biharamunean, lanera.

Umorea, kantuak, bertsoak... Santa Eskeko ohiko osagaiak izan arren, hirurogeita hamarreko hamarkada, politikoki (salbuespen egoera) eta sozialki, ez zen batere samurra izan. Taldeak ere une ezatseginak bizi izan zituen. Beroitz pasarte batez primeran akordatzan da: *"Behin, Goiz Eguzki inguruan kantatzen ari ginela Guardia Zibila azaldu, eta Land Roverd-etatik metrailetak eskuan zituztela atera ziren. Kantatzen ari ginela ikusi, buelta eman eta ospa egin zuten"*. Koadrilak ederki hartu zuen arnas.

Kantu kontari.

Santa Eskean ateratzeak asko pozten du Beroitz. Ez dio batere lanik eman 50 urtetan zehar. Ezta Tomasenari ere. Biek bat datoz: lana gogoz egiten bada ez da lana. Kale-buelta egiten hasi orduko, lehen kantan, beti urduri aritzen omen da Beroitz. Handik aurrera, gozamina. *"Satisfazio handia da taldeak mende erdi betetzea. Usadio oso gurea da eta ez dugu galtzen utzi behar. Oraindik ere, aurrera jarraitzeko gogoa dugu"*, gaineratu du Tomasena.



Jose Ramon Beroitz beste bi partaidekin
1960-1970eko hamarkadan.



Aurtengo edizioan, Plaza Berrian, taldearen omenaldia jaso zuten Be-roitzek eta Tomasenak. Hitzik gabe geratu zirela aitortzen dute: ez omen zuten inondik inora espero. Erabat hunkitu ziren. Santa Eskeko taldea anitza denez, koadrila, lagun eta her-ritar ezberdinen lotura hori herna-niarrontzat aberastasun handia dela azpimarratzen du Tomasenak. *"Ohit-uraren etorkizuna belaunaldi berrien esku dago; gu, hemendik aurrera nahi dutenerako laguntzeko prest gaude"*.

Inazio Mari Zubeldia duela 50 urte Hernaniko kaxkoko kaletatik ba-rrera irten zen lehen koadrilako par-taide izen zen. Aurtan, mende erdi ondoren, berriz atera da. *"Niretzat pozgarria izan zen parte hartzea. Baita gogoangarria ere. Garai bateko kontuak etorri zitzaizkidan burura. Giro apar-tean, umore onean, biltzen ginen garai batean, eta aurtan ere beste hainbeste izan da"*.

Urte hauetan guztietan taldean al-daketa batzuk antzeman ditu. *"Hasie-ran bertsolari bakar bat izaten zen. Orain, berriz, hiruzpalau. Eta hernania-rrak guztiak. Horrek asko poztu nau"*, esan du Zubeldiak. *"Garai batean eus-kara gutxi egiten zen herrian; orain gau-zak aldatu dira. Santa Ageda bezperako taldeak ere bere ekarpena egin du bai eus-kara bultzatzen, eta baita usadio zahar honek zutik iraun dezan ere. Urte askoan holaxe segi dezala opa diot"*. Zubeldiak brusa eta lepoko zapi zuria prest ditu datorren urteko otsaileko Santa Ageda bezperan irteteko. Beste hain-bestek bezala ez du hutsik egingo. Izan ere,

*...ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz,
baina eztarriz sano gabiltza
ta kanta nahi dugu gogoz.*

Kantu zaletasuna, doinua, bertsoak...

Andoni Lizeaga, Santa Agedako koadrilan 18 urte-ekin hasi zen (1980an). *"Beti gustatu izan zait kantuan egitea, bai Gabonetan eta bai Santa Eskean"*. Hernaniko Ohitura Zaharrak Abesbatzara hurbiltzea, ekimenez baino gehiago Patxiren gonbit batengatik izan zen. *"Behin kalean topo egin, eta gonbidatu ninduen Urte Zaha-rreko errondarako entsegura agertzera. Pozez hartu nuen bere deia. Ikastolatik ezagutzen nuen. Egun haren amaieran lagun bati eta bioi hurrengo ekitaldia, Santa Eskea izango zela esan zigun. Horrela hasi nintzen"*.

Santa Ageda bezperako eguna gogoko du Lizea-gak. Urte askotan ez da Hernanin atera izan. *"Irakasle izanik, ikastolarekin, Donostiako Ibaeta auzoan oso pozik irten arren, beti sumatzen nuen Hernanikoan sortzen den giroaren falta. Ez dakit zergatik. Bertsolariak beste 'txispa' bat ekartzen dutelako, txistularien laguntza izaten delako, elkarte gastronomiko batzuetara joaten garelako... Denak egiten du"*.

Jon Eizmendiri, bestalde, polita egiten zaio Santa Eskeko ohiturak naturarekin duen lotura: udaberria-ren lehen zantzuak, belar-punttaren lehen agerpena, neguko loalditik lurra makilaz esnatzea...

Bertsolariak zenbait gauza azpimarratzen ditu Santa Ageda bezperan denen artean kantatzen diren bertsoen doinuaz eta letraz. *"Bolada luze batean Euskal Herrian santu askoren bizitzetako bertsoak idatzi izan ziren; bai puntako bertsolariak -Xenpelar...- bai beste egile ano-nimo askok. Izugarritzko estimazioa izaten zuten paperetan saltzen zirenean. Nork eginak ote dira Santa Ageda bezpe-ran kantatzen ditugun bertsoak? Apaizen batek? Zergatik ez, izan daiteke. Edota apaizen batek argibideak emandako herritarren batek? Baliteke"*.

Eizmendik Santa Ageda bezperako ohitura, adibi-dez, bertsolari gazteentzat, herriko kaleetan barrena, bertsoan aritzeko aterabide bat bezala ikusten du. Jen-daurrera jauzia egiteko modu bat. *"Gu hasi ginenean, taldean ongi hartuak izan ginen, eta guretzat pozgarria izan zen"*.

Urteak dira Iñaki Zelaia eta Joxe Luis Urdangarin bertsoan aritzen direla Santa Ageda bezperan. Beraien kalkuluen arabera 1987-88tik irteten dira Hernaniko

Ohitura Zaharrak Abesbatzak antolatzen duen Santa Eskean. "Ikastola garaian Patxi Odriozola etortzen zen kantuak irakastera. Berak zaletasuna piztu ondoren jarraipen bat izan zen helduen taldera pasatzea. Ikastolatik irten eta 15 bat urterekin hasi ginen taldean bertsoan", esan du Zelaia.

"Hasi berriak ginenez, guretzako plaza egokia zen jende aurrean trebatzen hasteko", gaineratu du Urdangarinek. Zelaiaren iritziz, bertsoan aritzeko aukera polita da Santa Eskea, eta taldean giro ona dagoenez ahal duten neurrian jarraituko dute irteten. Jon Iraolak ere antzeko ibilbidea egin du. "14 urterekin hasi nintzen bertso eskolako kideek animatuta; orduz geroztik ia urtero irten naiz". Ohiturei eutsi eta ondo pasatzeko intentzioarekin irteten da Iraola.

Urdangarinentzat, Santa Ageda bezperako ekitaldia "ohitura kuttun" bihurtu da: "Euskal kulturaren sustraitutako usadioak mantentzeko apustuan sinesten dugu". Eta sortzen den giroak animatzen du parte hartzera: "Herrian egiten diren lau errondetatik, Santa Ageda, bezperakoa, San Joanekoa, Gabonetakoa eta Urte Zaharretakoa, seguruenik, Santa Eskea, errondazaleentzat atseginena da". Hamaika arrazoi-rengatik. "Elkarteen inplikazioagatik, ordutegiagatik, kalea gureganatzeko aukeragatik...".

Santa Eskean bezperan kantari irtetea ongi pasatzeko bidea da, eta horrek asko balio duela dio Jon Eizmendik. Portu auzokoak, desio bat du. "Ea gazteak zaletzen diren, eta Hernani aldeko beste bertsolari belau-naldiek gustu bera hartzen dioten Santa Ageda bezperan kantari irteteari".

Eskatzea libre da...

Diktadura garaian (1939-1975), nahitaez, edozein ekitaldi aldeztu aurretik antolatzeko baimena eskatu behar izaten zen. Eta noski, eskariak gaztelaniaz egitea derrigorrezkoa zen. Hernaniko Ohitura Zaharrak Abesbatzak bere eskuetan duen idatzi zaharrena, 1963koa da. Hala dio urte hartako urtarilaren 17an Tiburtzio Patxi Odriozolak eginitako eskariak:

"...que haciéndose eco de los deseos de un grupo de jóvenes amantes de las tradiciones del país que tratan de reavivar las sanas costumbres de nuestros mayores, proyecta honrar la festividad de Santa Agueda con la organización de un grupo de cantores que desfilarían por las calles de la localidad entonando las canciones tradicionales de tal día con fines benéficos, cuya actuación tendría lugar al anochecer del día cuatro de febrero próximo y que precisando la autorización de V.I., solicita de su autoridad la concesión del permiso correspondiente".

Alkateak, Tiburtzio Agirrek, lau egunen buruan baimena eman zion taldeari herriko kaleetan barrena kantari irteteko:

"...vistas las facultades que me concede el Excmo. Sr. Gobernador civil de la Provincia con fecha de 2 de Enero de 1957; He decidido concedérselo".

Baimena ez zen aitaren batean lortzen, izan ere, ondorengo zenbait urtetan erantzunaren orrian, tokian tokiko alkateak, zera gogorarazi zuen:

"...He decidido concederla, debiendo responder el suscriptor de la petición de que no se producirá alteración de orden público". Edo *"...haciéndole a V. responsable de cualquier alteración / incidente de orden público que se produzca"*. Taldeak baimena jasotzen zuen, baina baita erne ibiltzeko oharra ere.



Ate txikietan, 1970eko hamarkadan.



Txistulariak (Patxi Apezetxea, Txobito, Garbiñe Tijero eta Joseba San Sebastian) eta bertsolariak Santa Eskean atera ziren partaideekin (1980ko hamarkadan).

Eskusoinua eta txistua

Santa Eskeko koadrilak lehen urteetan, Arantzako (Nafarroa) soinu-jole baten doinu-pean egin zituen kale-bueltak. Oso iaioa zela gogoratzen du Joxe Mari Tomasena. Ondoren, gaurdaino, txistuak hartu dio akordeoiari lekukoa. Antonio Intxausti *Txobitok* gidatzen zituen gazteekin hasieran, eta herriko txistulari bandako partaideekin ondoren.

Elkarte eta kaleetan zehar, ez da txistu hotzik falta izaten otsailaren 4an. Patxi Apezetxea txistularia ez da berria Santa Eskean. Euria, hotza eta noiz edo noiz hego haizea egin arren, ez du hutsik eginen. Erdi gaixorik, burutik beherakoarekin ere irten izan da. "Eguraldi hezeetan, mendiko botak eta brusa beltzaren azpian beroki lodia jantzi, eta txistua jotzera!" esan du Apezetxeak. Txistulari koadrila Garbiñe Tijero, Jesus Mari Gutierrez, Ramon Iriarte eta Joseba San Sebastianek osatzen dute. "Santa Ageda bezperako ekitaldia, nire agendan ekitaldi finkoa da; txistulariok gustura ir-


teten gara Santa Eskean, ohiturei eustea gustatzen baitzaigu. Hasieran, guztiok, serio samar hasten garen arren, amaitzea kosta egiten da; taldekideen artean giro ona izaten den seinale".

Kale bueltaren une esanguratsu bat, taldeak Txantxangorri elkartearen egiten duen merienda izaten da. Otordu txiki bat egin ondoren, bertsolari eta txistulariek saio berezia egiten dute. Txistulariek, adibidez, bizpahiru pieza jotzen dituzte. Bat, *Nafarroako Gorteetako martxa*, ohikoa azken urteetan. Amaitu ondoren, elkarte batetik bestera joaten dira; Txantxangorritik, Santa Barbarara.

Ibilbidean zehar Txalaparta eta Santa Barbara elkarteetan jo eta kantatzen diren bertako ereserkien berreskuratzeaz, Apezetxeak izan du zeresanik. "Txalapartakoa nik moldatu nuen txistuarekin jotzeko, eta erdi desagertua zegoen Isidro Ansorenak idatziriko Santa Barbara elkartekoa, udal artxibategitik lortu nuen. Bazkide askok ereserikirik bazenik ere ez dakitenez Santa Eskeko taldearen laguntzaz ari gara pixkanaka biak ezagutarazten".

Euxebio Igartzabal:

“Hernaniko Santa Agedak jende jator mordoa ezagutzeko aukera eman dit”.



Herriko kaleak ez ditu batere arrotzak Euxebio Igartzabalek (Gabiria, 1944). Hernaniko tabernak zein elkarteak ondo ezagutzen ditu Santa Ageda bezperako koadrilari esker. Batean baino gehiagotan egin izan zuen bertsotan Santa Eskean. Urte haiek ez zaizkio ahaztu. Ondo gogoan ditu.

Nola izan zen zure bertsolari-lurreratzea Hernanin?

Herriko festetan egiten den errondaren eskutik hurbildu nintzen estreinakoz, Migel Arozamena bertsolaria ordezkatuz. Lesakan jaio-tako bertsolariak ezin zuenez, Angel Osa, Antton Garin eta beste pertsona bat etorri ziren niregana ea Hernanin bertsotan egin nahi ote nuen galdezka. “Bai”, erantzun nien. Lehen aldiz, San Joan bezperako errondan

aritu nintzen. Gogoan dut; igandea zen. Nafarroa aldetik, Goizuetatik barrena iritsi nintzen Hernanira.

Eta ondoren Santa Ageda bezperan ere aritu zinen.

Bai. Errondan Patxi Odriozola ezagutu ondoren, harrez gero, otsailean ere aritu nintzen bertsotan.

Bertsoak botaz herria ezagutzeko aukera izan zenuen.

Bai. Hernani eta hernaniarrak. Adibidez, bazen Pepe Perez, *Pepe Galletera* ezizeneko pertsona bat. Jatorriz andaluziarra izan arren, euskaraz gaztelaniaz baino hobeto egiten zuen. Santa Ageda bezperan eta San Joan errondan, taldearen zain egoten zen Zinkoeneako tabernan. Beti marka oneko botila bat ardo ateratzen zigun. Eta bertsoren batean aipamenen bat eginez gero, izugarritzko malakoak ateratzen zituen. Asko hunkitzen zen. Gogoratzen dut Lizeaga auzora kantuan egitera joaten ginenean kintoa nuen lagun batekin ere topo egiten nuela.

Urteetan bakar-bakarrik aritu zinen bi ekitaldietan bertsotan.

Hala da. Gero pixkanaka Antton Garin eta Julian Ezeiza *Aterpe* bertso eta koplak kantatzen animatu zirenean, bertso-lagun izan nituen. Halako batean, zera esan nien: '*Zuek bertsotan dakizuen zergatik ez zarete zuek aritzen?*'. Hura izan zen nire azken ekitaldia. Joxe Fermin Argiñarena ere taldean izaten zenez, bera ere bertsotan aritzen zen. Zazpi bat urte eman nituen jarraian Hernanin bertsotan.

Bertso mordoxka kantatzen zenituen. Nekatuta amaitzen al zenuen?

Bertso asko botatzen nituen baina leku jakinetan aritzen nintzen; jende kopuruaren eta taldearen inguruan sortzen zen giroaren arabera. Batzuetan indarra egin behar da bertsoa ateratzeko eta besteetan sortzen den giroak lagunduta irteten dira.

Bertsotan hasi aurretik, inguruan, izango zenuen laguntzailerik, ezta?

Bai. Herriko nondik norakoak kontatzen zizkidatenak: *Patxi* Odriozola, Antton Garin... Halere urteen poderioz, elkarte edota taberna batean egon ohi ziren pertsonak erdi ezagutzera ere iritsi nintzen, bertsoak taldeari edo pertsonari botatzen nizkien. Eta topatzen ez nituenean ere, non ote zebiltzan galdezka aritzen nintzen bertsoak botatzeko.

Otsaila hilabete hotz eta hezea da. Euripean behin baino gehiagotan kantatua izango zara?

Bai. Guardasola ia beti lagun izaten genuen. Han aritzen ginen elkar tapatzen.

Gabiriatik Hernanira etortzeko ez da denbora askorik behar izaten. Duela 30 bat urte, dezente gehiago.

Bai. Garai hartan Tolosa eta Andoain, adibidez, herriak gurutzatuz igarotzen nituen nire Citroen Dian kotxean. Ordubeteko ibilbidea. Eta itzultzeko, gau ilunduan, beste hainbeste.

Santa Eskeko saioa amaitu ondoren, berandu samar, *Patxi* bere etxera eramaten zintuen afaltzera.

Bai. Bertso saio bat egin ondoren, etxera joan eta oheratzea bezain garrantzitsua da lagunekin batera une lasai bat igarotzea. Lehen San Joan errondan izan ezik, ondoren, beti, *Patxi* etxean amaitzen nuen Santa Agedan kantari irtendako beste bizpahiru kideekin batera afaltzen. Maritxu, etxekoandrea, zain izaten genuen. Afari haietako batean jakin nuen, *Patxi* Odriozolak, Tiburtzio izena zuela. Mahai inguruan, emazteak bere izenez deitu zionean, orduan izan nuen bere benetakako izenaren berri, Tiburtzio. Afari ederrak egin nituen etxe hartan.

Otordua egin ondoren, habiara; lo pixka bat egin, eta lanera!

Bai. Afaldu, tertulia egin eta etxera. Eta lo apur bat egin ondoren Gabiriatik Ormaiztegi-ira lanera.

Zer eman diozu Hernaniko Santa Ageda bezperari, eta zer eman dizu zuri?

Niri eman? Jende jator mordoa ezagutzeko aukera. Ez dakit nik zer bait eman diodan. Agian bertso giro bat sortzeko koadrila bat bultzatzea; *Aterpe*, Garin, Argiñarena... orduan hasi baitziren bertsotan.